

ERREAKZIOAK. Frogarik ez izatean ebazpenak ez duela aurrera egiterik izango uste du EAEko Justizia sailburuak

Azkarraga: «Nork ordainduko dizkie sortutako kalteak GALen biktimei?»

Eusko Jaurlaritzak, EAJk, EAK eta EB-IUk gogor kritikatu dute Garzonen azken autoa

Erredakzioa | DONOSTIA

Eusko Jaurlaritzak, EAJk, EAK eta EB-IUk ez dute begi onez ikusi Batasunari kale istiluen kalteak ordainarazteko Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak herenegun kaleratu zuen autoa. Are gehiago, gogor salatu dute ekimena. Joseba Azkarraga Jaurlaritzako Justizia sailburuak, esaterako, «arrazoi erabat politikoak» ikusi zituen erabakiaren atzean, eta EAKo presidente Begoña Errazti «legez kontrako» eta «onartezina» iritzi zion autoari.

Azkarragaren ustez, ETaren atentatuetako biktimek Batasunaren erantzukizuna eskatu ahal izateko «bidea irekitzen» du Garzonen erabakiak, eta, horrela, zilegi izango litzateke Espainiako Poliziaren edota Guardia Zibilaren ondasunak bahitzea ere, hilketengatik zigortutako kideak dituelako: «Nork ordainduko dizkie kalteak GALen biktimei?».

Azkarragak dio «arrazoi erabat politikoak» daudela erabakiaren atzean, Garzon «Espainiako Gobernuaren beso politiko fidel» bihurtu dela, Botere Judizialaren independentziaren kalterako: «Ilegalizazio prozesua nork abiatuko duen erabakitzeke lasterketa zoroa hasi da, eta Garzon da kapitaina». Halaber, Garzonek frogarik ez duela esan zuen Azkarragak, eta prozedurak ez duela aurrera egiteko aukera askorik: «Zorroztasun juridikoa berriro ere bazterrean geratu da».

Iritzi berekoa da Juan Maria Atutxa Eusko Legebiltzarreko presidentea ere: «Ezinezkoa» ikusten du auzitegiek bahimendua mantentzea, «oso zaila» izango delako kale istiluekin lotura duenik frogatzea. Bestela ere, haren iritzi zahimenduak ez luke eraginik izango Batasuneko ordezkari «gehienek» soldatetan. Herenegun erabakia Batasunaren «ilegalizatorako pauso bat» dela dio Atutxak.

Halaber, Emilio Olabarria Eusko Legebiltzarreko EAJko kideak ere Garzonen autoa bertan behera geratuko dela uste du: «Garzonek Batasuna kale borrokarekin lotuta dagoela frogatuko balu, eta ez du frogatzerik, Batasuneko arduradunak delitu horienatik auzipetu beharko litzuzke, eta ez erantzukizun zibilarengatik».



ESTEBAN COBO / EFE
Joseba Azkarraga Justizia sailburua, Botere Judizialeko Goi Kontseiluko presidenteordearekin, atzo.

ESPAINIAKO GOBERNUA

Raxoiarentzat, «albiste zoragarria»

Mariano Raxoi Espainiako Gobernuako presidenteordearen ustez, Garzon epailearen autoa «albiste zoragarria» da «espainiarren %99,9rentzat». ETaren aurkako «kolpe latza» dela ere esan zuen. Pio Cabanillas Espainiako Gobernuaren bozeramaileak, berriz, azaldu zuen «ondorio asko» ekarriko dituela; ETaren

biktimek Batasunari erantzukizuna eskatu ahal izatea ere ondo legokeela esan zuen, baina ez dakiela «bide juridiko hori» irekiko ote den. «Gure helburua oso sinplea da: terrorismoa amaitzea». Bide batez, PPko eta PSOEko hainbat ordezkari ere Garzon txalotu zuten. Alvaro Cuesta PSOEko Udal Politikako idazkari federalak, adibidez, Garzonen autoa «juridikoki arrazoizkoa» dela adierazi zuen, eta «norbait» izan behar dela kale istiluen erantzule zibila. Kale istiluek Batasunaren «babes juridiko eta politikoa» dutela dio Cuestak.

dute, polemika interesatua sortu osten.

Cossigaren elkartasuna

Francesco Cossiga Italiako errepublikako presidente ohiak elkartasuna adierazi zion atzo Batasunari, aurrez ilegalizazioaren kontuarekin egin bezala. Francoren garaiko ekimena iruditzen zaiola esan zuen.

LAB eta ELA sindikatuek ere gogor gaitzetsi zuten Garzonen autoa. LABen prentsa-oharrak dioenez, «Euskal Herriaren aurkako beste eraso bat da», eta bertako «salbuespen egoera» uzten du agerian. «Burgabeheria antidemokratikoa» dela dio. German Kortabarria ELAko komunikazio arduradunak, berriz, «eskubideen urraketa» salatu zuen. Autoa «erabat ideologikoa» dela esan zuen, ez duela «inongo logikarik», baina kalteak «larriak eta konpenezinak»

izango direla. Zutik-ek, ANVk eta Segi gazte erakundeak ere salatu zuten ekimena.

Nafarroako Gobernuako presidentea Miguel Sanz, ordea, pozik zegoen autoarekin. Udalei eta herritarrei kalteen zerrenda egin eta Batasunaren erantzukizuna eskatzeko deia egin zien.

ESANAK

JUAN MARI ATUTXA

(Eusko Legebiltzarreko presidentea)

«Oso zaila ikusten dut auzitegiek bahimendua mantentzea, ezinezkoa»

JOSEBA AZKARRAGA

(Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburua)

«Ikusi da Batasunaren ilegalizazioa dela helburua, eta Garzon fitxak mugitzen hasi dela hori lortzeko»

BEGOÑA ERRAZTI

(EAKo presidentea)

«Epailearen jarrerak erakusten du errugabetasuna dela frogatu beharrekoa»

RAMON JAUREGI

(PSE-EEko diputatua Espainiako Kongresuan)

«Kale istiluen eta Batasunaren arteko lotura utzi du agerian Garzonen autoak»

XAVIER TRIAS

(CiUko eleduna Espainiako Kongresuan)

«Bahimenduak ez du judizialki funtzionatuko, eta Garzonen beste porrot bat izango da»

ANTTON KARRERA

(EB-IUko eleduna Eusko Legebiltzarrean)

«Moncloan diseinatutako operazio juridiko-politiko da»

Lan bila zabilta?
18 eta 32 urte arteko adina duzu?

Pertsonen zerbitzura jarduetako lanbidea nahi zenuke?

Hauxe duzu aukera.

Erztzaintzako 200 lanposturako delaldiria. Adina, 18 urtetik 32ra. Izena emateko epea: ekainaren 31tik - uztailaren 8ra.

Informa zaitzez hemen:
Tel.: 945 194282
www.ertzaintza.net
Euskal Herriko Agintaritzaren Abilizkaria

Partisano zerbitzuan diharduten pertsonak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEBEREZ: GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INTERIOR

20